

GIL 77 Jaizkibeleko ibai-haranak



Jaizkibelgo mendebaldeko ibilbide laburreko haranen multzoa.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 22' 1,63" N

Long.: 1° 51' 40,12" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 592.271,96 m

Y: 4.802.213,86 m



Nola iritsi

Hartu GI-3440 Lezoren eta Hondarribiaren artean, eta, Jaizkibel gaina pasatutakoan, hartu iparralderantz ateratzen den pista. Jarraitu pista horretatik oinez, itsasertzera iritsi arte.



Erentzin eta Aierdi errekek osatzen dute mendiguneko garapen handieneko haranetako bat.

GILaren deskribapena

Jaizkibel formazioa honela definitzen da: lodiera handiko formazio litologiko bat, pikor fin eta ertaineko kuartzo-hareharrizko geruza gris-urdinxka (horia, alterazioaren ondorioz) lodiz (tarteka, pikor lodiko hareharrizko geruzak ere ikusten dira) eta zementu kare-dunoz osatua. Hareharrizko geruza lodien artean tartekatuta, izaera buztintsuko geruza mehe batzuk daude (lutitak).

Akuiferoaren sistema banakako "azpiakuifero" batzuetan zatituta dago, alboetan faziesak lutitetara aldatu direlako edo alterazio-haustura baxuko eremuak daudelako. Horrez gain, dirudienez, badira zenbait maila piezometriko, iragazgaitz erlatiboz bereziak.

Baliabide berriztagarria, guztira, 13,8 hm³-an zenbatetsi da (EVE, 1996). Lezo, Pasaia eta Hondarribiko udalerriak hornitzen dituzten zenbait iturburu garrantzitsuren bidez egiten da deskarga, bi isurialdeetan.

Akuifero honek iragazkortasun bikoitza du: primarioa, pikor arteko porositateagatik, eta sekundarioa, pitzadurengatik eta hari lotutako disoluzioagatik (karstifikazioa). Iturburu asko lotzen zaizkie material horiei; iturburu horietako batzuek N-S norabideko erreka-toak sorrarazten dituzte, eta itsasora isurtzen dira. Itsasoratzean, *chevron* erako erliebe ikusgarriak sortzen dituzte labarren lerroan.

Mendigune osoan dauden haranen eta lurrazaleko drainatze-sarearen erakusgarri delako aukeratu da proposatutako GILa.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 50, GIL 99, GIL 115, GIL 136.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 101.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				●
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Haran bat aukeratu da mendigune osoaren erakusgarritzat.				

Bibliografia espezifikoa

- Edeso, J. M. eta Ugarte, F. M. (1990): "Algunos datos sobre la paleo-geografía litoral cuaternaria de la costa: Jaizkibel-Bahía de Txingudi (Golfo de Vizcaya)".
- EEE (1996): *Euskal Autonomia Erkidegoko mapa geologikoa* 1/100.000 eskalan.
- EVE-EJ (1999). *Balance de Resultados de la Investigación de la Unidad Hidrogeológica Jaizkibel (Gipuzkoa) – Propuesta de Explotación.*
- EJ-EVE (2000): *Prueba de Producción Conjunta en los Sondeos Jaizkibel-1, 2, 3, 5, 9 y DJH4 (Hondarribia-Gipuzkoa).* Informe Final.
- EVE-EJ (2000). *Prueba de Producción Conjunta en los Sondeos Jaizkibel, JE1, JE2, JE3, JE5, JE9 y DJH4 (Hondarribia-Gipuzkoa).*
- Galán, C.; Nieto, M. eta RIVAS, J. M. (2009): *Pseudokarst en arenisca Flysch Eoceno de Gipuzkoa.* Formación Jaizkibel.